



Камерадун gizona (Человек с киноаппаратом),
Dziga Vertov, 1929.

ARTE ETA TEKNOLOGIA: IKUS-ENTZUNEZKOAK

Egilea:
Aida Vallejo Vallejo
UPV/EHU



AURKEZPENA:

“Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak” izeneko kurtsoaren atal bat sortzen dute testu hauek. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) argitaratu ditu OCW (Open Course Ware) proiektuaren barne.

Kurtso osoa ikusteko, bilatu web-gune honetan: ocw.ehu.es, 6. zk. (2013 urtean), “Giza Zientziak” (“Arte y Humanidades”) atalean .

Nola aipatu:

Vallejo, Aida (2013) “Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak”, OCW UPV/EHU-an, 6.zk. <http://ocw.ehu.es> (Lizentzia Creative Commons: BY-NC-SA)

Egile eskubideei buruzko argibideak:

Lan hau Creative Commons lizentziapean argitaratuta dago. Horregatik erabiltzaileak kopiatzeko, banatzeko eta komunikatzeko baimena dauka honako baldintza hauek betetzen badira: egilea aipatu, helburu komertzialetarako ez erabili, eta jatorrizko materiala edo egokitutako materiala berriro argitaratzen baditu, hauek libreki lizentzia berdinpean eskaini.

Lan honetan erabilitako irudi gehienak Creative Commons lizentziapean argitaratuta daude. Jatorrizko web-gunea ikusteko, klikatu irudiaren alboko gezia.

Beste kasuetan, irudien autoreak aipatzen dira, Jabetza Intelektualaren legeak betez.

3.Gaia:

ESPAZIOA

3. Gaia: ESPAZIOA (aurkibidea)

- *Irudiaren teknologiak:*
 - *2D-3D.*
 - *Objektiboa: funtzionamendua eta motak.*
 - *Eremu-sakonera eta foku-distantzia.*
 - *Formatuak, kalitateak eta proiektzio-tamainak.*
- **Euskarriak eta kamera-mugimenduak.**
- *Espazioa ikus-entzunezkoetan - kontzeptuak:*
 - *Plano/hartualdi/sekuentzia/eszena. Plano-sekuentzia.*
 - *Espazio filmiko: Eremua/eremuz kanpokoa.*
 - *Eszenografia eta atrezzo.*

KAMERA KOKATZEKO EUSKARRIAK

1. Finkoak
 1. Tripode
 2. Ainguraketak
2. Mugikorrak:
 1. Steadycam
 2. Dolly
 3. Garabi

Tripode



Imagen de Peter van der Sluijs publicada en Wikimedia Commons

Tripode



*Imagen de Andrew
Butko publicada en
Wikimedia Commons*

Ainguraketak



*Imagen de Kelly Herrin
(FilmCrewTech)
publicada en Flickr*

Steadycam



*Imagen de Fryfilm2000
publicado en Wikimedia
Commons*

Dolly



*Imagen de Vancouver Film School
publicada en Flickr: VFS Summer Intensive
Programs 2011), via Wikimedia Commons*

Dolly zirkular



*Imagen de Jack Kelly
publicada en Wikimedia
Commons*

Garabi



*Imagen de Runner1616
publicada en Wikimedia
Commons*

KAMERA-MUGIMENDUAK

- 1. EUSKARRI FINKOA: PANORAMIKA**
- 2. EUSKARRI MUGIKORA:
TRAVELLINGS**
- 3. ESKUKOA**
- 4. LEIARREK SORTUTAKOA**
- 5. ENKOADRAKETA FINKOA**

Kamera-mugimendu motak

(irudi mugikorrean: zine eta bideo)

Panoramika

Kameraren ardatza mugitzen da

Travelling

Kameraren euskarria mugitzen da
(non dago kokatuta: adibidez, tripodean)


Panoramika

KAMERAREN ARDATZA MUGITZEN DA
(euskarria – kokatuta dagoen lekua - ez da mugitzen).

Panoramika-motak:

- Panoramika horizontala
- Panoramika bertikala
- Panoramika laprana (diagonala)
- Panoramika moztuta
- Ekorketa

Panoramika bertikala



*Imagen de
Aida Vallejo*

Euskarri finkoan uzten dugu kamera, eta ardatza mugitzen dugu gorantz edo beherantz.

Travelling

(KAMERA KOKATUTA DAGOEN EUSKARRIA MUGITZEN DA -TRIPODEA EDO BESTE EUSKARRI BAT-)

Travelling-motak:

- Travelling aurrera (avante)
- Travelling atzera (retro)
- Alboko travelling
- Travelling zirkular

Travelling aurrera/atzera





Imagen de
Aida Vallejo

Alboko travelling



*Imagen de
Aida Vallejo*

Travelling zirkular




Imagen de
Aida Vallejo

ESKUKO MUGIMENDUAK

Kamera-operadorearen gorputzak euskarri eta ardatza gisa funtzionatzen du.
Ez du tripodetik erabiltzen.

Eskuko mugimendu-motak:

- Kamera eskuan
- Kamera sorbaldan
- Steadycam

Kamera eskuan (handheld)



Imagen de NdFrayssinet publicada en Wikimedia Commons

Kameraren ardatza (gure eskua) eta euskarria (gure gorputza) aldi berean mugitzen dira.

Kamera sorbaldan



*Imagen de Peter van der Sluijs
publicada en Wikimedia Commons*

Steadycam



*Imagen de Schlenni
publicada en
Wikimedia Commons*

Irudia dar-dar egiten ekiditeko Steadycam euskarria erabiltzen da (malguki sistema bati eskera mugimendua egonkorragoa da).

LEIARREK SORTUTAKO MUGIMENDUA

Ez da kamera-mugimendua, aparailua finkoa geratzen delako. Hala eta guztiz ere, irudian mugimendua ikusten dugu, fokuratze eta enkuadraketa aldatzen diren heinean.

Enkuadraketaren aldaketaren mugimenduak:

- Zoom-in
- Zoom-out

Fokatzearen aldaketaren mugimenduak:

- “Flou” artistiko

Zoom-in

Objektiboaren leiarrak mugitzen dira.

Adibidez, plano irekiarekin hasten gara (plano orokorra) eta zooma biratzen dugun heinean plano ia ixten dugu (lehenengo planoarekin amaituz).

Zoom-out

Objektiboaren leiarrak mugitzen ditugu plano itxiarekin hasten (adibidez, lehenengo plano), eta plano irekiarekin amaituz (adibidez, plano orokorrarekin).

“Flou” artistikoa

Kamera finkoa uzten dugu, eta enkoadraketa aldatu gabe, fokuratzea aldatzen dugu.

Hasieran kameraren gertu dagoen pertsona edo objektua fokuratuta agertzen da, eta amaieran, hondoan dagoena fokuratuta ikusiko da.

ENKOADRAKETA FINKOA



Kamera geldirik uzten dugunean, Koadroaren barruan ikusten ditugun mugimenduak ere inportanteak dira.



*Imagen de
Aida Vallejo*

Kontuan izan behar ditugu koadro barruko mugimenduak muntaketa egiterakoan, planoen arteko erlazioa sortzen delako filmaren espazioa sortuz.

Koadro barruko mugimendua



El color de las granadas (Sayat Nova), Sergei Paradjanov (1968)

“Mingranen kolorea (Sayat Nova)” izeneko filman, Sergei Paradjanov zinegileak Armeniako kulturari buruzko eszena bereziak sortzen ditu enkoadraketa finkoa erabiliz. Horrela, koadro barruan dauden elementuen mugimenduak nabarmenkeria lortzen dute.

Estekak

- Kamerak kokatzeko euskarriak:
<http://www.xataka.com/videocamaras/soportes-de-camara-cuando-y-como-utilizarlos-especial-video-v>